

# Gazteak



**Lehen Aukera  
programa  
2025** (EHAA 2024/12/27)



# 02

## Deialdiaren xedea

**EAEko ENPRESENTZAKO edo beste erakunde batzuentzako laguntzak arautzea, titulazioarekin zerikusia duten lanpostuetan langabezia dauden eta aurretik lanik izan ez duten edo lan esperientzia gutxi duten gazteak laneratzeko kontratu mugagabeak edo prestakuntzakoak egiteko.**

**Enpresek beren izangaiak aukeratzeko ahalko dituzte,** deialdiaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzenean edo Euskal Enplegu Zerbitzuaren edo entitate laguntzaileen bitartez:

- a. **Zuzenean, kontratatu beharreko pertsonak ikasketak egin dituen prestakuntza zentroaren bidez,** baldin eta enpresa horretan deialdiko 7 a) artikuluan aipatzen den prestakuntza aldia bukatu badu.
  
- b. Gainerako kasuetan, **lan-eskaintza baten kudeaketa eskatu behar da** Euskadiko Enplegu Zerbitzuan edo baimendutako erakunde laguntzailean.

Interesdunek langabetuak izan beharko dute eta kasuan kasuko zerbitzu publikoan inskribaturik egon, beren datu eguneratuekin.



02

**Kontratatutako pertsonak  
bete beharreko baldintzak**

## 01 16 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako gazteak, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a. Dagokion zerbitzu publikoan izena emanda eta enplegu-eskatzaille gisa alta emanda egotea, eta kontratua hasi aurreko egunean langabezian egotea.
- b. Honako multzo hauetakoren batean zehaztutako titulu edo ziurtagiriren bat izatea:
  - Lizentzia, ingeniaritza, arkitektura edo masterra (Bologna plana)
  - Unibertsitateko diplomatura, ingeniaritza teknikoa, arkitektura teknikoa edo unibertsitateko gradua (Bologna plana)
  - Lanbide Heziketa arautuko eta berariazko lanbide-heziketako goi-mailako edo erdi-mailako teknikaria. Teknikari laguntzailearen (LH I) eta teknikari espezialistaren (LH II) tituluak horien baliokideak izango dira.
  - Ofizialki aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulazio batzuk.
  - Profesionaltasun-ziurtagiria.
- c. Tituluari edo profesionaltasun-ziurtagiriari lotutako enpleguetan gehienez 6 hilabeteko esperientzia izatea.

## 02 **Gazte Bermearen Sistemari** inskribatzea:

- a. **Enpresak zuzenean egindako** hautaketa-prozesuan, **Gazteen Bermerako Sistemari** izena emanda egon beharko dute kontratatutako gazteek
- b. **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere bulegoen edo zentro kolaboratzaileen bidez**, hautaketa-prozesua egitean, **lehentasuna emangozaie Gazte Bermea Sistemari** izena emanda daudenei, bat etorri Hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legean xedatutakoarekin.

**03** Gazteek **prestakuntza duala** egin duten **enpresak zuzenean hautatutako gazteekin** egiten diren kontratuek **mugagabeak** izan beharko dute, edo **lanbide-praktika eskuratzeko 12 hilabeteko prestakuntza-kontratuak**, baldin eta hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko egiten bada prestakuntza.

**04** Lehen Aukera programaren **aurreko edizioen batean praktikaldia egiteko edo lanbide-praktika eskuratzeko prestakuntza jasotzeko kontratatu** ziren pertsonak **kontratu mugagabearen modalitatean** soilik onar daitezke oraingo deialdian, baldin eta kontratu mugagabea egiten duen enpresa ez bada praktiketako kontratua edo lanbide-praktika eskuratzekoa egin zuen enpresa berbera.